

Zeresana emango du



Zer egin gure zaborrekin?

Datorren asteazkenean, hilak 18, San Markos Mankomunitatearen Plangintza Integralaren aurkezpena egingo da Ernest Lluch kultur etxean. Herritarrek zaborteziaren plangintzari buruz proposamenak egiteko aukera izango dute otsailera arte. Hauek aztertu ondoren, plana behin betiko onartzea aurreikusi du mankomunitateak.

Ainhoa Irazu

San Markoseko Mankomunitateko 12. udalerrietako batzarkideen arteko eztabaida luzeen ondoren, azkenean, urriari zaborteziaren plangintza Integrala onartu zen.

Plangintza 2006 eta 2016 bitartean hondakinak kudeatzeko proposamena da. Izan ere, aurreikusitakoaren arabera, zabortegia 2006an itxi eta estaliko dute. Ondorioz, ezinbestekoa da zaborrak kudeatzeko alternatibak aztertzea.

Hondakinak kudeatzea mankomunitate bakoitzari dagokio. Gipuzkoako Foru Aldundiak herrialde osorako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plangintza onartu zuen abuztuan. Dena dela, San Markosek plangintza propioa egin du, Aldundiarena-ekin bateragarria.

Xabier Landa Mankomunitateko presi-

**Donostialdean
errausgailua
jarri nahi da**

dentearen arabera, San Markoseko plangintzak hiru ardatz nagusi ditu. "Lehen proposamena zaborrak gutxitzea da. Bestetik, ezinbestekoa da gehiago birziklatzea, eta horretarako, konpost guneak eta garbiguneak sortu behar dira. Azkenik, gelditzen diren hondakinak erre nahi ditugu eta hortik argindarra sortu. Beraz, errausketa gune bat eraikitzea proposatzen dugu", dio Xabier Landak.

Kritikak eta ezadostasunak

Bai abuztuan Gipuzkoako Foru Aldundiak onartutako Hiri Hondakinen Kudeaketarako Plangintzak, bai San Markoseko Plangintza Integralak errausketa guneak eraikitzea aurreikusi dute. Guztira, hiru errausgailu egin nahi dira Gipuzkoan, horietako bat Donostialdean.

Eguzki talde ekologistak kritika zorrotzak egin ditu. "Erraustea eredu ikamikatua izan da beti. 1994an Aldundiak berak sistema hori baztertu zuen, baina oraingoan primerako aitzakia aurkitu dute errauske sistema berriro ere mahai gainean jartzeko: San Markos zabortegia ixtea", esan digute Eguzkiko kideek.

Bestalde, Eguzkiren ustez, "Aldundiak

mota guztietako trikimailuak erabili ditu San Markoseko batzarkideek errauske sistemaren alde egin dezaten". Illo horretatik, Xabier Landa San Markoseko presidentek aitortu digu plan integrala egiteko prozesuan batzarkideen artean desadostasuna izan dela nagusi. "Batasuna salbu, gainerako alderdiak, hau da, PP, PSE-EE eta EA-EAJ errausgailu eta azpiegitura erraldoien alde daude. Horrexegatik atzeratu da Planaren onarpena, ados jarri ezinik ibili garelako", dio Landak.

Dena dela, Landaren hitzetan, "une honetan garrantzitsuena ez da errausgailuen arriskuaz hitz egitea, alternatibez hitz egitea baizik. Ezinbestekoa da, etorkizunean gure zaborrekin zer egin erabakitzeke, denon artean gogoeta egitea. Egia da errausgailuak arriskutsuak izan daitezkeela, baina gaizki kudeatutako zabortegia ere kaltegarria da".

Kale kantoitik

Bi aurkezpen Donostian

San Markoseko Mankomunitateak, zaborren kudeaketa sistema berria aukeratzeko prozesuan, herritarrek parte hartzea nahi du, eta horregatik aurkezpenak egingo ditu. Donostian bi egingo dira: bata, hilaren 18an Ernest Lluch kultur etxean 09.00tan eta bestea, urtarrilaren 23an Koldo Mitxelena kulturunean 18.30ean.

